



BARNE ARAUDIA

ESKOLA JANTOKIA

Bazkarien zerbitzua eta haurren zaintza herriak antolatzen du. Janarien prestaketa SUHARI TRAITEUR enpresak egiten du; menuak eskolako afixatze taulan dira hamabost egun lehenagotik afixaturik.

Higiene eta segurtasuna

Haurrek eskuak garbitu behar dituzte bazkaldu aitzin. Lasaiki behar da bazkaldu; jokamolde nahasiegia edota asaldagarriegia zigortua izanen da.

- Senideei horren berri emanen zaie,
- Jantokitik aldi baterako edo behin betiko kanporatua izan liteke jokamolde hori errepikatzen badu.

Jantokiaren begiraleek kontrolatuko dute higiene eta diziplina neurri horiek haur guztiek betetzen dutela. Senideen lankidetzaz ezinbestekoa da begiraleen zeregina eta lanaren antolaketa errazteko, beren haurrek goiko neurri horiek bete ditzaten.

FAMILIA ATARIA

Familia atariaren bidez ematen da izena:

<https://www.mon-portail-famille.fr/acces/mairie-guethary>

Eskola jantokiaren tarifak eta ordainketa

Bazkarien prezioa familien diru-sartzeen arabera da (familia koziantea).

Familia koziantea	Bazkariaren prezioa
➤ 0 eta 700 € artekoa	3,30 €
➤ 701 eta 1000 € artekoa	3,60 €
➤ 1000 €tik gora eta herritik kanpoko haurra	4,20 €

ORDAINBIDEA:

- Diruzaintza Publikoaren (Trésor Public) aldeko txekez edo lineako ordainketaz (payfip.gouv.fr),
- Kentze automatiko bidez – **Emazue RIB zenbakia, dosierra aurkeztean kentze automatikorako inprimakia igorriko zaizu (kentze hori automatikoki luzatuko da urte batetik bestera jadanik egin dutenentzat**, kentze horretarako kontratua bertan behera utzi nahi duenak herriko etxeari behar dio 2 hilabete lehenago jakitera eman).

GARRANTZITSUA:

Gurasoek herriko etxeari jakitera eman behar diote haurrak alergia-erreak edota jan-molde berezirik badu (Batbederari Egokitu Harrera Protokoloa plantan emateko).

Begiraleak ez dira botikak emateko baimendurik.

UDAL HAURTZAINDEGIA (ESKOLA EGUNETAN)

ZABALTZE ALDIAK

Hurtzaindegia eskola egunetan da zabalik, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan:

7:30etik 8:20etara eta 16:15etik 18:30era

Gurasoek edota laguntzaileek ordu markaketak egin behar dituzte haurrak hel eta alde egitean. Haur oro baimena duen heldu batek behar du jaso.

IZEN EMATEAK

Erantsirik doakizun izen emate fitxa bete eta herriko etxeari itzuli behar zaio.

Urtean zehar gertatu egoera aldaketa ororen berri eman behar da.

HAURTZAINDEGIAREN ORDAINKETA ETA TARIFAK

Ordainketak **faktura jasotzean** egin behar dira:

- Diruzaintza Publikoaren (Trésor Public) aldeko banku txekez edo linean ordainduz (payfip.gouv.fr),
- Kentze automatikoz –**urte batetik besterako automatikoki luzatuko dira jadanik eginik diren kentze kontratuak**, kentze kontratua bertan behera utzi nahi duenak herriko etxeari behar dio 2 hilabete lehenago jakitera eman.

Goiz edota arratseko hurtzaindegia

Prezio finko bidezkoa:

- 24 €/hilean haur batentzat
- 36 €/hilean bi haurrentzat
- 45 €/hilean hiru haurrentzat
- 48 €/hilean lau haurrentzat

Erabiliaren araberakoa:

15 minutuko tarteka fakturatzen da
7:30etik 8:20etara eta 16:30etik
18:30era

JOKAMOLDEA

Haurrek jendetasun betez behar dute jokatu hala animatzaileekin nola lagunekin (ez laidorik, ez trufarik, ez liskarrik...). Eskura uzten zaien materiala ere zaindu behar dute.

Diziplinagabeko edo adeigabeko haurra abertimendu batez zigortuko da. 2 abertimendutik goiti, auzapez andreak aldi baterako kanpora lezake haurra egituratik.

HIGIENEARI, OSASUNARI ETA ELIKADURARI BURUZKO XEDAPENAK

Langileek ez dute botikarik emanen.

Ez da abererik onartzen (ez bada zerbitzu emaile bereziek proposatu jardunen harira).

Ezin da, inolaz ere, eraikinaren barnean erre.

Askari orekatua apaila ezazue (gozoki oro debekaturik da).

SEGURTASUNARI BURUZKO XEDAPENAK

Laguntzaileek ezin dute haurra edo haurrak sartze atearen aitzinean bakarrik utzi. Animatzaile bati aurkeztu behar dizkiote.

Soilik gurasoek edota ahalordez baimenduriko helduek jaso ditzakete haurrak hartzaindegiko langileengana jo eta alde egite kaiera sinatu ondoren.

Ahalorderik ez bada, haurrak ezin du hartzaindegitik alde egin.

Ezin dira hartzaindegira gauza arriskutsurik (haiztoak, berina, supiztekoak...) eta jostailurik ekarri.

ERANTZUKIZUNEI BURUZKO XEDAPENAK

Animazio lantaldeak haurren segurtasun orokorraren gainean duten erantzukizuna dela eta, animatzaileek debeka lezakete haurrarentzat arriskutsu iruditzen zaien jardun oro eta erabaki horri ezin zaio helegiterik egin.

Hartzaindegiaren erantzukizuna publikoari zabalik den ordutegian bakarrik eta soilik xedapen hauek betetzen dituzten hurrei dagokienean da gertatzen.

Auzapez andreak eta udal langileek dute, nork berari dagokionean, araudi honen betetzearen ardura.

HAURTZAINDEGI ALDIKO IKASTALDI ZAINDUA

Bolondresak (erretretadunak) kudeatu ikastaldi zaindua emanik da plantan astearte eta ostegunetan **17:00etatik 17:45era** lehen mailako 2. urtetik bosgarren urtera artekoentzat.

Ikastaldirako izena emanik diren haurrak erregulariki beharko dira hara joan eta ezin dira gelatik 17:45 baino lehen joan.

Honi erantsirik doakizun izen emate fitxa bete eta herriko etxeari itzuli behar diozu.

Aldi hori hurrei beren eskola lana autonomoki aitzinatzeko aukera emateko da. Ez dira gidaturiko ikastaldiak, baina tarte lasaia eskainiko dute. Hurrek marraztu edota irakurri ahalko dute, nahi dutenaren arabera.

Gehiegikeriarik, ordea, ez da onartuko eta lan giroa hausten duen haurra automatikoki kanporatu eta hartzaindegira bidalia izanen da.

OSTATATZE GABEKO AISIALDI HARRERA (OGAH-ALSH)

ASTEAZKENETAN ETA ESKOLA OPORRETAN

ZABALTZE ALDIAK

Aisialdi harrera asteazkenetan eta honako eskola opor hauetan da zabalik:

Omiainsua, Negua, Udaberria, Uztaila eta 2023ko abuztuaren 18 arte (Eguberri oporretan ez da OGAHrik izanen).

Hetsirik da larunbat, igande eta besta egunetan.

Harrera hau Gizarte Kohesiorako Departamendu Zuzendaritzan adierazia da eta, horren arabera, langileen kalifikazioari eta kopuruari buruzko araudia bete behar du. Hartara, hartuko dituen haurren kopurua dauden langileen kopuruaren arabera izanen da.

ZABALTZE ORDUTEGIAK

Aisialdi harrera honako ordutegi honetan da zabalik: 7:30etik 18:30era:

*Goizeko harrera 7:30 eta 9:00ak artean (haurtzaindegia),
Eguerdiko harrera (bazkariarekin) 11:45 eta 12:00ak artean,
Arratsaldeko harrera (bazkaririk gabe) 13:30 eta 14:30 artean.*

*Abiatzea egun ½, bazkaririk gabe, 12:00etan,
Abiatzea egun ½ bazkariarekin, 13:30 eta 14:30 artean,
Abiatzea 16:30 eta 18:30 artean (haurtzaindegia).*

OGAH
HARREMANETARAKO:

06.82.87.65.33

alsh@guethary.fr

Gurasoek edota laguntzaileek haurren heltzea eta alde egitea markatu behar dute. Haur orok baimena duen heldu batekin alde egin behar du goian aipatu tenoretan.

IZEN EMATEAK

Familia atariaren bidez ematen da izena:

<https://www.mon-portail-famille.fr/acces/mairie-guethary>

- ✓ Asteazkenetarako: Erreserbak harrera eguna baino 2 egun lehenago hesten dira
- ✓ Oporretarako: Erreserbak astea hasi baino 8 egun lehenago hesten dira

Abisua eman gabeko ezeztatze oro fakturatuko da.

ORDAINKETAK ETA TARIFAK

OGAH-ALSH harrerak Familia Laguntza Kutxaren (FLK-CAF) funtzionamendurako laguntza du.

Familia Laguntza Kutxaren laguntzaren onuradun diren familiei preziozko kenduko zaie FLKren jakinarazpenaren frogagiria aurkeztuz gero. Familien diru sartzek Familia Laguntza Kutxak plantan eman aplikazioaren bidez kontsultatuko dira, zuek bestela erran ezean.

FLKren laguntzapean ez diren familientzako kalkulua azken zerga agiria aurkeztearekin egingen da.

Ordainketak **faktura jasotzean** eginen dira Diruzaintza Publikoaren (Trésor Public) aldeko txeke bidez edo lineako ordainketaz (payfip.gouv.fr) edo kentze automatikoz (kentze hori automatikoki luzatuko da urte batetik bestera jadanik egina dutenentzat, kentze horretarako kontratua bertan behera utzi nahi duenak herriko etxeari behar dio 2 hilabete lehenago jakitera eman).

Familia kozientea	Haur kopurua	Eguna	Egun ½ bazkariarekin	Egun ½ bazkaririk gabe
➤ 0 eta 700 € artean	1	9,30 €	7,30 €	4 €
	2	16,28 €	12,78 €	7 €
	3 eta +	21,86 €	17,16 €	9,40 €
➤ 701 eta 1000 € artean	1	11,60 €	9,60 €	6 €
	2	20,30 €	16,80 €	10,50 €
	3 eta +	27,26 €	22,56 €	14,10 €
➤ 1000 € baino gehiago eta Herriz kanpoko haurra	1	14,20 €	12,20 €	8 €
	2	24,85 €	21,35 €	14 €
	3 eta +	33,37 €	28,67 €	18,80 €

JANZKERA

Gisako janzkera eta jarrera zuzena behar dira. Baldintza horiek betetzen ez dituenak kanporatua izanen da diru itzultzerik gabe.

Hobe da aisialdi harlekura doazen haurrek bertan egiten diren jardunetarako, bereziki kanpoan egiten direnetarako, egoki diren jantziak janztea.

JOKAMOLDEA

Haurrek jendetasun betez behar dute jokatu hala animatzaileekin nola lagunekin (ez laidorik, ez trufarik, ez liskarrik...). Eskura uzten zaien materiala ere zaindu behar dute.

Diziplinagabeko edo adeigabeko haurra abertimendu batez zigortuko da. 2 abertimendutik goiti, auzapez andreak aldi baterako kanpora lezake haurra egituratik.

HIGIENEARI, OSASUNARI ETA ELIKADURARI BURUZKO XEDAPENAK

Langileek ez dute botikarik emanen.

Ez da abererik onartzen (ezbada zerbitzu emaile bereziek proposatu jardunen harira).

Ezin da, inolaz ere, eraikinaren barnean erre.

Askari orekatua apaila ezazue (gozoki oro debekaturik da).

SEGURTASUNARI BURUZKO XEDAPENAK

Laguntzaileek ezin dute haurra edo haurrak sartze atearen aitzinean bakarrik utzi. Animatzaile bati aurkeztu behar dizkiote.

Soilik gurasoek edota ahalordez baimenduriko helduek jaso ditzakete haurrak hartzaindegiko langileengana jo eta alde egite kaiera sinatu ondoren.

Ahalorderik ez bada, haurrak ezin du hartzaindegitik alde egin.

Ezin dira hartzaindegira gauza arriskutsurik (haiztoak, berina, supiztekoak...) eta jostailurik ekarri.

ERANTZUKIZUNEI BURUZKO XEDAPENAK

Animazio lantaldeak haurren segurtasun orokorraren gainean duten erantzukizuna dela eta, animatzaileek debeka lezakete haurrarentzat arriskutsu iruditzen zaien jardun oro eta erabaki horri ezin zaio helegiterik egin.

Hartzaindegiaren erantzukizuna publikoari zabalik den ordutegian bakarrik eta soilik xedapen hauek betetzen dituzten hurrei dagokienean da gertatzen.

Auzapez andreak eta udal langileek dute, nork berari dagokionean, araudi honen betetzearen ardura.